Ordiziako Udala

2022ITGB0010

Ordizian, **2022ko maiatzaren 26a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **26 de mayo de 2022** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garziandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Bittor Bolinaga Alzelai | EAJ/PNV |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA**

Ainhoa Esnaola Zubeldia

**BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1. 2022ko maiatzaren 12a ohiko bilkurako akta onartzea.
2. 2022ko maiatzaren 16ko ez- ohiko bilkurako akta onartzea.
3. Ordiziako udal mugapeko eta udal titulartasuneko eraikinetako kontrol eta zaintza bektorialeko zerbitzua kontratatzea
4. Herritarrentzako 2 informazio puntu hornitzea, instalatzea eta mantentzea.

***ASUNTOS TRATADOS***

***ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:***

1. *Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 12 de mayo de 2022.*
2. *Aprobación de acta de la sesión extraordinaria de fecha 16 de mayo de 2022.*
3. *Contratación del servicio de control y vigilancia vectorial de los edificios del término municipal de Ordizia y de titularidad municipal*
4. *Adquisición, instalación y mantenimiento de 2 puntos de información a la ciudadanía.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

5. Igogailua jartzeko etxebizitza egokitzeko proiektua (Arramendi 9)

*5. Proyecto de acondicionamiento vivienda para instalación de elevador en Arramendi 9*

6. Zenbait txosten eta eskaera.

.- Zuhaiztiko igogailua

.- Barrenako igogailua eta ebakuazio proiektua.

*6. Informes y solicitudes varias.*

*.- Ascensor de Zuhaizti*

*.- Ascensor de Barrena y proyecto de evacuación.*

7. Galde-eskeak.

*7. Ruegos y preguntas.*

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

.- Ordiziako festetan garbiketa berezia burutzeko lanak kontratatzea.

.- Diego Rivero 1 kalean igogailua 0 kotara jeisteko obra baimena.

*.- Adjudicación del contrato del servicio de limpieza especial para las fiestas patronales, por procedimiento abierto.*

*.- Diego Rivero kalea 1. Licencia de obra para instalación de ascensor a cota 0.*

**GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**

**<u>ORDUTEGIA</u>**

**HASIERA ORDUA: 13:00etan** **AMAIERA ORDUA: 14.30etan**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Alkatea

.- Batetik, festak direla eta garbiketa-zerbitzuarekin kontratazioaren pleguak dauzkagu. Goizez gure langileak egoten dira eta ondoren errefortzu gisa, kanpo-kontratatu egiten da.

.- Bestetik, irisgarritasunerako obra bat da, atzeratzen ari zena eta urgentziaz sartzen dena.

*Sr. Alcalde*

*.- Por un lado tenemos los pliegos de la contratación del servicio de limpieza para fiestas. Por la mañana suele estar el personal de plantilla y después como refuerzo, se contrata externamente.*

*.- Por otro lado, hay otro punto que se iba retrasando y por eso se presenta por urgencia. Se trata de una obra de accesibilidad*

**Urgentziaren bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

Tokiko Gobernu Batzarrak urgentziaren bozkaketa egin eta aho batez onartu da gai-zerrendan bi gau hauek sartzea.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2022ko maiatzaren 12ako bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2022ko maiatzaren 12ako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

***1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 12 de mayo de 2022***

*Propuesta*

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 12 de mayo de 2022***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- 2022ko maiatzaren 16ko ez- ohiko bilkurako akta onartzea.**

***2.- Aprobación de acta de la sesión extraordinaria de fecha 16 de mayo de 2022.***

Proposamena

*Propuesta*

**2022ko maiatzaren 16ko ez-ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

***Aprobar el borrador del acta de la sesión extraordinaria de fecha 16 de mayo de 2022***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Ordiziako udal mugapeko eta udal titulartasuneko eraikinetako kontrol eta zaintza bektorialeko zerbitzua kontratatzea**

***3.- Contratación del servicio de control y vigilancia vectorial de los edificios del término municipal de Ordizia y de titularidad municipal.***

Proposamena

*Propuesta*

*- Aditzera ematen dira Idazkaritzan burututako Administrazio Klausula Berezien Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua Ordiziako udal mugapeko eta udal titulartasuneko eraikinetako kontrol eta zaintza bektorialeko zerbitzua kontratatzeko, urteko lizitazio-oinarria 9.763,24 eurokoa da (BEZik gabe)..*

- Kontratuaren balio zenbatetsia, luzapenak aurreikusita, ***42.958,24 €**,* da, luzapen posibleak barne (2+1+1 urte).

- Administrazio Orokorreko Teknikariaren txostena, kontratatzeko beharrari buruzkoa Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko 28 artikuluari jarraiki.

Hori guztia aztertuta ondorengo akordioa proposatzea erabaki da:

**AKORDIO PROIEKTUA**:

1.- *Ordiziako udal mugapeko eta udal titulartasuneko eraikinetako kontrol eta zaintza bektorialeko zerbitzua* kontratatzeko espedientea onartzea. Lizitazio-prezioa: 11.813,52 €

2.- Kontratuko aldeak bereganatzen dituzten eskubide eta betebeharrak definitzen dituen Baldintzak Administratiboaren Plegua eta Baldintza Teknikoen Plegua onartu.

3.- Gastua onartzea 1.227.01.311.10.0282 2022- (3360) aurrekontu-partidaren kargura.

4.- Lehiaketa eta prozedura ireki bidezko lizitazio deialdiari hasiera ematea, azaroaren 8ko 9/2017 SPKLren 156 artikuluari jarraituz.

*- Se da cuenta del Pliego de Cláusulas Administrativas particulares y del Pliego de Prescripciones Técnicas, elaborados por los servicios técnicos para la contratación del servicio de control y vigilancia vectorial de los edificios del término municipal de ordizia y de titularidad municipal, con un presupuesto base de licitación anual de 9.763,24 euros (exento de IVA).*

*- El valor estimado del contrato asciende a **42.958,24 €**, incluidas las posibles prórrogas (2+1+1 años*).

*- El informe de la necesidad de contratación de la Técnico de Administración General, de acuerdo al artículo 28 de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público.*

*A la vista de todo ello, se acuerda proponer el siguiente:*

***PROYECTO DE ACUERDO:***

*1.- Aprobar el expediente para la contratación servicio de control y vigilancia vectorial de los edificios del término municipal de ordizia y de titularidad municipal con un precio de licitación de **11.813,52 €***

*2.- Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas y el Pliego de Prescripciones Técnicas que definen los derechos y obligaciones que asumen las partes del contrato.*

*3.- Aprobar el gasto con cargo a la partida presupuestaria 1.227.01.311.10.0282 2022- (3360)*

*4.- Dar inicio a la convocatoria de licitación por procedimiento abierto, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 156 de la LCSP 9/2017, de 8 de noviembre.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Adur: Orain arte contra-txiki bidez funtzionatu izan da, baina irismen eskasarekin eta ondorioz, lizitaziora atera behar izan da.

*Adur: hasta ahora se ha funcionado mediante contra-txiki, pero con escaso alcance y en consecuencia se ha tenido que sacar a licitación.*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Herritarrentzako 2 informazio puntu hornitzea, instalatzea eta mantentzea.**

***4.- Adquisición, instalación y mantenimiento de 2 puntos de información a la ciudadanía.***

Proposamena

Kontratu honen xedea da herritarrentzako 2 informazio puntu hornitzeko, instalatzeko eta mantentzeko, bai eta edukiak prestatzeko, kudeatzeko eta argitatatzeko kontratua esleitzea.

Zehazki lan hauek kontratu nahi dira:

2 PIC berri hornitu eta instalatu. Gainera PICetan eskuragarri jarri beharreko edukiak prestatu, kudeatu eta argitaratzea (alta, baja eta edizioa) eta PICak mantentzea. Plegu honetan deskribatzen diren PICak honako leku hauetan kokatuko dira:

*Propuesta*

*El objeto del presente contrato es la adjudicación del contrato que tiene por objeto el suministro, instalación y mantenimiento de 2 puntos de información ciudadana, así como la preparación, gestión y aclaración de los contenidos.*

*En concreto se trata de contratar los siguientes trabajos:*

*Suministro e instalación de 2 nuevos PIC. Además, preparar, gestionar y publicar los contenidos a poner a disposición de los PIC (alta, baja y edición) y mantener los PIC. Los PIC*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

- Plaza Nagusira ematen duen fatxada, udaletxearen ondoan.

- Joan Amezketa kalearen eta Joaquin Jose Artega kalearen artean kokatutako euskarria

*descritos en el presente pliego se ubicarán en los siguientes lugares:*

*- Fachada que da a la Plaza Mayor, junto al Ayuntamiento.*

*- Apoyo situado entre las calles Juan Amezketa y Joaquín José Artega*

Esleipeneko oinarrizko aurrekontua 72.309,60€ ( BEZa barne) da.

*El presupuesto base de adjudicación es de 72.309,60 €(IVA incluido).*

Elementuak (panelak eta softwarea) hornitzeko eta instalatzeko gehieneko epea 10 astekoa izango da, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita. Panelen mantentze-lanak eta edukiaren kudeaketa zerbitzuak bi urtekoa izango da (2) gehi urtebeteko bi luzapen, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita.

*El plazo máximo para el suministro e instalación de los elementos (paneles y software) será de 10 semanas a contar desde la fecha de formalización del contrato. El mantenimiento de los paneles y la gestión del contenido será de dos años (2) más dos prórrogas anuales a contar desde la fecha de formalización del contrato.*

**PROPOSATZEN dut:**

**Aurreko guztia kontuan izanda espediente honi onespena ematea.**

***PROPONGO:***

***De conformidad con todo lo anterior, aprobar el presente expediente.***

<u>Eztabaida</u>

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

<u>Adur</u>: herrian bi pantaila dauzkagu baina zaharkituta gelditu dira izan ere, soilik letrak onartzen dituzte. Dirulaguntza eskatu dugu eta Rosak jada bideratu du gaia. Urriak 31 baino lehenago instalatuta eduki behar ditugu dirulaguntza jasotzeko eta bideoak jartzeko aukera ematen dute.

Momentuz bi izango dira izan ere oso garestiak dira baina aurrerantzean gehiago jartzea da asmoa izan ere oso bisuala da.

*<u>Adur</u>: en el pueblo tenemos dos pantallas, pero han quedado obsoletas, ya que sólo admiten letras. Hemos solicitado una subvención y Rosa ya ha tramitado el tema. Tenemos que tenerlas instaladas antes del 31 de octubre para recibir la subvención. Las nuevas permiten colgar vídeos.*

*De momento se van a instalar dos porque son muy caras, pero a partir de ahora la idea es poner más porque sonn muy visuales.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Mila: non kokatu behar dituzue?

Adur: bat Udaletxe azpian eta bestea ziurrenik Altamira inguruan, zubi inguruan izan ere bertatik jende asko igarotzen da. Baina oraindik definitzeke dago. Beste aukera Tximista inguruan jartzea litzateke. Ikusi beharko da.

*Mila: ¿Dónde se van a colocar?*

*Adur. Una debajo del Ayuntamiento y la otra seguramente en la zona de Altamira, hacia el puente, porque por ahí pasa mucha gente. Otra opción podría ser Tximista. Ya se verá.*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Igogailua jartzeko etxebizitza egokitzeko proiektua (Arramendi 9)**

Proposamena

- **Jose Luis Lizarbe Diez** jaunak eskatuta izapidetutako espedientea, Arramendi kaleko 9. zenbakian dagoen etxebizitza egokitzeko, bertan igogailu bat jartzeko eta irisgarritasun-arazoak konpontzeko. Horretarako, **Ordiziako Arramendi kalea 9. Plataforma Jasotzailea Instalatzeko Exekuzio-Proiektua** aurkeztu zuen. **EHAEOk 2022/04/13an bisatua.**
- 2022ko maiatzaren 19ko data duen Udal Arkitekta teknikaren aldeko txostena

***5.- Proyecto de acondicionamiento vivienda para instalación de elevador en Arramendi 9***

*Propuesta*

- *El expediente tramitado a instancias de **José Luis Lizarbe Diez** para acondicionamiento de la vivienda sita en Arramendi Kalea nº 9, con el fin de instalar en la misma un elevador y resolver los problemas de accesibilidad, presentando para ello **"Proyecto de Ejecución de Instalación de Plataforma Elevadora. Arramendi kalea nº 9 de Ordizia. Visado por el COAVN en fecha 13/04/2022".***
- *El informe favorable de la Arquitecta Técnica Municipal de fecha 19 de mayo de 2022.*

**PROPOSATZEN DUT:**

- **JOSE LUIS LIZARBE DIEZ** jaunari eskatzen duen obra-lizentzia **ematea**, aurkeztutako proiektuaren arabera eta honako alderdi hauek betetzearen baldintzapean:

  - Etxebizitza horietako bat edo batzuk legez okupatuta egon behar dutela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, bai desgaitasuna aitortuta duten pertsonek, bai 65 urtetik gorakoek.

  - Errolda-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, etxebizitza hori edo horiek pertsona horien ohiko bizilekua direla frogatzeko.

  - **Honako agiri hauek ekarri beharko dituzte obra hasi aurretik:**

  a. Obrako zuzendari fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko da.
  b. Aseguru-polizaren egiaztagiria (kopia), mugakide diren etxeetan, ondasunetan eta pertsonetan eragindako kalteei aurre egiteko dena.
  c. Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza, **1.647,50** eurokoa.
  Bermearen zenbatekoa Udalak duen kontu zenbakian jarri beharko da obrak hasi aurretik, kontu zenbakia hau da:

  **Kontu zkia: 20955073041060024857**

  - **Obrek irauten duten bitartean kontuan hartu beharko da.**

**PROPONGO:**

- ***Conceder a JOSE LUIS LIZARBE DIEZ*** *la licencia de obras que solicita, conforme al proyecto presentado y condicionada al cumplimiento de los siguientes extremos:*

  - *Se deberá aportar documentación que certifique que alguna o algunas de las referidas viviendas han de estar legalmente ocupadas por persona o personas con discapacidad reconocida o por personas mayores de 65 años.*

  - *Se deberán aportar certificados de empadronamiento para demostrar que esa o esas viviendas constituyen el domicilio habitual de las mencionadas personas*

  - ***Previo al inicio de obra se deberá presentar en estas dependencias:***

  *a. La notificación del nombramiento de la dirección facultativa de la obra.*
  *b. El justificante (fotocopia) de la póliza de seguro, que cubra los riesgos de daños a edificios colindantes, bienes y personas.*
  *c. La fianza requerida en el Decreto 112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, por la cantidad de* **1.647,50** ***euros.***
  *Dicho importe deberá depositarse* ***previo al inicio de obra*** *en la cuenta del Ayuntamiento de Ordizia:*

  ***Nº Cta.: 20955073041060024857***

  - ***Durante las obras deberá tener en cuenta:***



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

1. Obrek irauten duten bitartean, seinaleztapen-, babes- eta segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte, istripurik gerta ez dadin. Bideek nahiz espaloiek, bertatik ibiltzeko moduan eta babestuta egon beharko dute Udaltzaingoaren jarraibideak betez; era berean, kaleak moztu eta bere seinaleak ipintzerakoan, beraien jarraibideak bete beharko dira.

*1. Durante las obras, deberá tomar las medidas de señalización protección y seguridad necesarias para evitar accidentes. Manteniendo las aceras y viales transitables y protegidos, de acuerdo con la Normativa de la Policía Municipal. Asimismo, deberán seguir sus indicaciones para los cortes de calle y señalización de los mismos.*

2. Obren kontratista esleipendun guztiek egunean izango dituzte Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

*2. Todo contratista adjudicatario de las obras, estará al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.*

3. Lan guztiak egiteko, oinezkoen eta langileen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz egingo dira.

*3. Todos los trabajos se realizarán tomando las medidas necesarias para garantizar la seguridad de los peatones y trabajadores.*

4. Laneko Osasuna eta Segurtasunari buruz indarrean dauden Lege-Arau guztiak beteko dira, bereziki 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza obretan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa eta 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena; baita bere aldaketak, eta hauekin bat datozen xedapenak eta aplika daitekeen prebentzio arloko beste edozein arau ere.

*4. Se cumplirá con todas Normas Legales Vigentes sobre Salud y Seguridad en el Trabajo, en particular el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción, la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y el Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención; así como sus modificaciones, disposiciones concordantes y cualquier otra norma de ámbito preventivo aplicable.*

5. Obran enpresa batek baino

*5. Si en la obra participan más de*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

gehiagok edo hainbat langile autonomok parte hartzen badute, SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILE bat izendatu beharko da.

*una empresa o varios trabajadores autónomos se deberá designar un COORDINADOR DE SEGURIDAD Y SALUD.*

**6.** Lanek dirauten bitartean, saihestu egingo da objektuak edo partikulak bide publikora jaurtitzea, eta neurri egokiak hartuko dira oinezkoek eta ibilgailuek kalterik ez jasateko.

***6.*** *Durante los trabajos se evitará la proyección de objetos o partículas a la vía pública, tomando las medidas oportunas para evitar que los viandantes y vehículos se vean afectados por la caída de objetos.*

**7.** Obran AMIANTOA duten materialak agertzen badira, obra gelditu egin beharko da, eta martxoaren 31ko, 396/2006 Errege Dekretuaren arabera kudeatuko dira, AMIANTOAREN eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena.

***7.*** *Si en la obra aparecen materiales que contengan AMIANTO, se deberá parar la obra y serán gestionados según el Real Decreto 396/2006, de 31 de marzo, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud aplicables a los trabajos con riesgo de exposición al AMIANTO.*

**8.** Eraispeneko hondakinak kentzeko eta kudeatzeko lanak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege dekretuak eta Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera egingo da.

***8.*** *La retirada y gestión de los residuos de la demolición se realizará de acuerdo a lo establecido en el Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, y Decreto 112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, por los que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.*

**9.** Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza **1.647,50** eurokoa da. Fidantza hau obrak egiten hasi aurretik ordaindu beharko da. Obligaziodun pertsonak eskaera egin ondoren itzuliko da fidantza eta obran sortutako

***9.*** *El importe de la fianza requerida en el Decreto 112//2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, es de* **1.647,50** *euros. Dicha fianza deberá ser depositada con carácter previo al inicio de las obras. La devolución se producirá previa solicitud de la persona obligada y tras la acreditación documental de la*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

hondakinen kudeaketa egokia egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ondoren, dekretuaren 6. artikuluan ezartzen den moduan.

- **Gainera, honako hauek ere gogoan izan beharko dira:**

  - Obrak egiteko ordutegia, goizeko 8etatik gaueko 8etara izango da lan-egunetan eta goizeko 8etatik eguerdiko 2etara jai-bezperetan. Jaiegunetan ezingo da lanik egin.

  - Obrak baimena eman eta 2 hilabeteren barruan hasi beharko dira. Bukatu, berriz, 6 hilabeteko epean bukatuta behar dute. Gehienez hilabetez eten daiteke obra. Epe horietako edozein beteko ez balitz, baimena iraungita geratuko litzateke.

  - Bide-seinale alternatiboak behar badira, euskaraz eta gazteleraz egingo dira. Eta euskara hutsez idatziko dira, berriz, bi hizkuntzetan antzeko grafia duten hitzak eta esamoldeak edota piktogramen bidez egiten direnak (Euskararen erabilera normalizatzeko ordenantzaren 18. artikulua). Udalak itzulpenetarako doako zerbitzua ematen du: 943805622.

- **Obra amaitu ostean aurkeztu beharreko dokumentazioa**:

  1. Obra amaierako ziurtagiria.
  2. Obra amaierako likidazioa.
  3. Hondakinak egoki kudeatu izanaren ziurtagiriak.

*correcta gestión de los residuos generados en la obra de acuerdo con lo establecido en el art. 6 del Decreto.*

- ***Asimismo deberá tener en cuenta otras consideraciones:***

  - *El horario permitido para ejecución de obras es de 8:00 horas a 20:00 horas los días laborables y de 8:00 horas a 14:00 horas los sábados. En días festivos no se podrán ejecutar.*

  - *Las obras se iniciarán dentro del plazo de 3 meses a contar desde la expedición de su licencia y deberá ser finalizadas en su totalidad en el plazo de 6 meses. El plazo de interrupción máxima será de un mes. El incumplimiento de cualquiera de estos plazos supondrá caducidad de la licencia.*

  - *Cuando sea necesaria la señalización vial alternativa, la misma se realizará en euskera y castellano, y se utilizará el euskera en caso de grafía similar en los dos idiomas así como en caso de anuncios que utilicen pictogramas / símbolos internacionales (Artículo 18 de la ordenanza de normalización del uso del euskera). Servicio gratuito de traducción del Ayuntamiento: 943805622.*

- ***Documentación a presentar una vez finalizada la obra:***

  1. *Certificado fin de obra.*
  2. *Liquidación de fin de obra.*
  3. *Certificados de correcta gestión de los residuos.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

- Lizentzi hau eskuratzeko aurretik udal zergak eta tasak ordaindu beharko dira.
- Akordio hau doakionari jakinaraztea.

- *Esta licencia queda condicionada al previo pago de los correspondientes impuestos y tasas municipales*
- *Notifíquese el presente Acuerdo a las personas*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Adur: etxebizitza egokitzeko obra handia da. Aldeko txostena dago eta igogailua jartzeko da.

*Adur: es una obra mayor de adecuación de vivienda. El informe técnico para la instalación de ascensor es favorable.*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

***6.- ORDIZIAKO FESTETAKO GARBIKETA BEREZIA EGITEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN ESLEIPENA, PROZEDURA IREKI ERRAZTU BIDEZ.***

***6.- ASUNTO: ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DEL SERVICIO DE LIMPIEZA ESPECIAL DE LAS FIESTAS DE ORDIZIA POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO.***

**Proposamena**

-Aditzera ematen dira Idazkaritzan burututako Administrazio Klausula Berezien Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua Ordiziako Santa Ana Festetako garbiketa berezia kontratatzea, urteko lizitazio-oinarria 23.181,81€ da (BEZik gabe).

*- Se hace constar que el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas celebrado en la Secretaría para la contratación de la limpieza especial de las fiestas de Santa Ana de Ordizia, tiene una base de licitación anual de 23.181,81 €(IVA excluido).*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

-Kontratuaren balio zenbatetsia, luzapenak aurreikusita, 23.181,81€ da, kontratuaren iraupena 1 urtekoa izanik.

- Administrazio Orokorreko Teknikariaren txostena, kontratatzeko beharrari buruzkoa Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko 28 artikuluari jarraiki.
Hori guztia aztertuta ondorengo akordioa proposatzea erabaki da:

AKORDIO PROIEKTUA:

1.- Ordiziako Santa Ana Festetako garbiketa berezia kontratatzeko espedientea onartzea. Lizitazio-prezioa: 23.181,81€ da (BEZik gabe).

2.- Kontratuko aldeak bereganatzen dituzten eskubide eta betebeharrak definitzen dituen Baldintzak Administratiboaren Plegua eta Baldintza Teknikoen Plegua onartu.

3.- Gastua onartzea 1 227.01.163.00.0281 2022 (3354)aurrekontu-partidaren kargura.

4.- Lehiaketa eta prozedura ireki bidezko lizitazio deialdiari hasiera ematea, azaroaren 8ko 9/2017 SPKLren 156 artikuluari jarraituz.

*- El valor estimado del contrato, previstas prórrogas, asciende a 23.181,81 €, siendo la duración del contrato de 1 año.*

*- Informe del Técnico de la Administración General sobre la necesidad de contratar de conformidad con el artículo 28 de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público.*
*Analizado todo ello, se acuerda proponer el siguiente acuerdo:*

*PROYECTO DE ACUERDO:*

*1.- Aprobar el expediente de contratación de la limpieza especial de las fiestas de Santa Ana de Ordizia. Precio de licitación: 23.181,81 € (IVA excluido).*

*2.- Aprobar el Pliego de Condiciones Administrativas y el Pliego de Condiciones Técnicas que definen los derechos y obligaciones que asumen las partes del contrato.*

*3.- Aprobar el gasto con cargo a la partida presupuestaria 1 227.01.163.00.0281 2022 (3354).*

*4.- Incoar la convocatoria de licitación por concurso y procedimiento abierto, de conformidad con el artículo 156 de la LCSP 9/2017, de 8 de noviembre.*

<u>Eztabaida</u>

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

<u>Bozketa</u>

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**7.- IGOGAILUA O KOTAN JARTZEKO OBRA BAIMENA -DIEGO RIVERO KALEA 1**

***7.- LICENCIA DE OBRA PARA INSTALACIÓN DE ASCENSOR A COTA 0 .- -DIEGO RIVERO KALEA 1***

**Proposamena**

- **Ana Gonzalez Catarainek, -DIEGO RIVERO KALEA 1eko Jabekideen** izenean eskatuta izapidetutako espedientea, bertako higiezinean dagoen igogailua ordezkatu eta 0 kotara jaisteko obrak egiteko, irisgarritasun-arazoak konpontzeko. Horretarako, "**ORDIZIAKO DIEGO RIVERO, 1 ZENBAKIAN 0 KOTARA EGOKITZAPEN Exekuzio PROIEKTUA**" aurkeztu zuen. **EHAEOk 2022/02/09an bisatua.**
- Udal Arkitekta teknikaren aldeko txostena.

- *El expediente tramitado a instancias de **Ana Gonzalez Catarain en nombre y representación de la Comunidad de Propietarios de Diego Rivero kalea nº 1** para sustitución del ascensor del citado inmueble y ejecución de obras para llegar a cota 0, y resolver los problemas de accesibilidad, presentando para ello **"Proyecto de Modificacion a Cota 0 del portal nº1 de la Calle Diego Rivero de Ordizia" Visado por el COAVN en fecha 9/02/2022".***
- *El informe favorable de la Arquitecta Técnica Municipal.*

**PROPOSATZEN DUT:**

- **DIEGO RIVERO KALEA 1EKO JABEKIDEEI** eskatzen duen obra-lizentzia **ematea**, aurkeztutako proiektuaren arabera eta honako alderdi hauek betetzearen baldintzapean:

1. Etxebizitza horietako bat edo batzuk legez okupatuta egon behar

**PROPONGO:**

- ***Conceder a la COMUNIDAD DE PROPIETARIOS DE DIEGO RIVERO Nº1*** *la licencia de obras que solicita, conforme al proyecto presentado y condicionada al cumplimiento de los siguientes extremos:*
- 

1. *Se deberá aportar documentación que certifique que alguna o*

dutela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, bai desgaitasuna aitortuta duten pertsonek, bai 65 urtetik gorakoek.

2. Errolda-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, etxebizitza hori edo horiek pertsona horien ohiko bizilekua direla frogatzeko.

- **Honako agiri hauek ekarri beharko dituzte obra hasi aurretik:**

a.- Obrako zuzendari fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko da.

b.- Aseguru-polizaren egiaztagiria (kopia), mugakide diren etxeetan, ondasunetan eta pertsonetan eragindako kalteei aurre egiteko dena.

c.- Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza, **2.510,40** eurokoa.

Bermearen zenbatekoa Udalak duen kontu zenbakian jarri beharko da obrak hasi aurretik, kontu zenbakia hau da:
**Kontu zkia: 20955073041060024857**

- **Obrek irauten duten bitartean kontuan hartu beharko da.**

1. Obrek irauten duten bitartean, seinaleztapen-, babes- eta segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte, istripurik gerta ez dadin. Bideek nahiz espaloiek, bertatik ibiltzeko moduan eta babestuta egon beharko dute Udaltzaingoaren jarraibideak betez; era berean, kaleak moztu eta bere seinaleak

*algunas de las referidas viviendas han de estar legalmente ocupadas por persona o personas con discapacidad reconocida o por personas mayores de 65 años.*

2. *Se deberán aportar certificados de empadronamiento para demostrar que esa o esas viviendas constituyen el domicilio habitual de las mencionadas personas.*

- ***Previo al inicio de obra se deberá presentar en estas dependencias:***

*a.- La notificación del nombramiento de la dirección facultativa de la obra.*

*b.- El justificante (fotocopia) de la póliza de seguro, que cubra los riesgos de daños a edificios colindantes, bienes y personas.*

*c.- La fianza requerida en el Decreto 112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, por la cantidad de* ***2.510,40 euros.***

*Dicho importe deberá depositarse* ***previo al inicio de obra*** *en la cuenta del Ayuntamiento de Ordizia:*

***Nº Cta.: 20955073041060024857***

- ***Durante las obras deberá tener en cuenta:***

1. *Durante las obras, deberá tomar las medidas de señalización protección y seguridad necesarias para evitar accidentes. Manteniendo las aceras y viales transitables y protegidos, de acuerdo con la Normativa de la Policía Municipal. Asimismo, deberán seguir sus indicaciones para los cortes de calle y*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

ipintzerakoan, beraien jarraibideak bete beharko dira.

2. Obren kontratista esleipendun guztiek egunean izango dituzte Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.
3. Lan guztiak egiteko, oinezkoen eta langileen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz egingo dira.
4. Laneko Osasuna eta Segurtasunari buruz indarrean dauden Lege-Arau guztiak beteko dira, bereziki 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza obretan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa eta 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena; baita bere aldaketak, eta hauekin bat datozen xedapenak eta aplika daitekeen prebentzio arloko beste edozein arau ere.
5. Obran enpresa batek baino gehiagok edo hainbat langile autonomok parte hartzen badute, SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILE bat izendatu beharko da.
6. Lanek dirauten bitartean, saihestu egingo da objektuak edo partikulak bide publikora jaurtitzea, eta neurri egokiak hartuko dira oinezkoek eta ibilgailuek kalterik ez jasateko.
7. Obran AMIANTOA duten materialak agertzen badira, obra gelditu egin beharko da, eta martxoaren 31ko, 396/2006 Errege Dekretuaren arabera kudeatuko dira, AMIANTOAREN eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko

*señalización de los mismos.*

2. *Todo contratista adjudicatario de las obras, estará al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.*
3. *Todos los trabajos se realizarán tomando las medidas necesarias para garantizar la seguridad de los peatones y trabajadores.*
4. *Se cumplirá con todas Normas Legales Vigentes sobre Salud y Seguridad en el Trabajo, en particular el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción, la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y el Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención; así como sus modificaciones, disposiciones concordantes y cualquier otra norma de ámbito preventivo aplicable.*
5. *5Si en la obra participan más de una empresa o varios trabajadores autónomos se deberá designar un COORDINADOR DE SEGURIDAD Y SALUD.*
6. *Durante los trabajos se evitará la proyección de objetos o partículas a la vía pública, tomando las medidas oportunas para evitar que los viandantes y vehículos se vean afectados por la caída de objetos.*
7. *Si en la obra aparecen materiales que contengan AMIANTO, se deberá parar la obra y serán gestionados según el Real Decreto 396/2006, de 31 de marzo, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud aplicables a los trabajos con riesgo*

segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena.

8. Eraispeneko hondakinak kentzeko eta kudeatzeko lanak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege dekretuak eta Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera egingo da.
9. Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza **2.510,40** eurokoa da. Fidantza hau obrak egiten hasi aurretik ordaindu beharko da. Obligaziodun pertsonak eskaera egin ondoren itzuliko da fidantza eta obran sortutako hondakinen kudeaketa egokia egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ondoren, dekretuaren 6. artikuluan ezartzen den moduan.

- **Gainera, honako hauek ere gogoan izan beharko dira:**

a. Obrak egiteko ordutegia, goizeko 8etatik gaueko 8etara izango da lan-egunetan eta goizeko 8etatik eguerdiko 2etara jai-bezperetan. Jaiegunetan ezingo da lanik egin.

b. Obrak baimena eman eta 2 hilabeteren barruan hasi beharko dira. Bukatu, berriz, 6 hilabeteko epean bukatuta behar dute. Gehienez hilabetez eten daiteke obra. Epe horietako edozein beteko ez balitz, baimena iraungita geratuko litzateke.

c. Bide-seinale alternatiboak behar badira, euskaraz eta gazteleraz egingo dira. Eta euskara hutsez idatziko dira, berriz, bi hizkuntzetan antzeko grafia duten hitzak eta

*de exposición al AMIANTO.*

8. *La retirada y gestión de los residuos de la demolición se realizará de acuerdo a lo establecido en el Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, y Decreto 112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, por los que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.*
9. *El importe de la fianza requerida en el Decreto 112//2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, es de 2.510,40 euros. Dicha fianza deberá ser depositada con carácter previo al inicio de las obras. La devolución se producirá previa solicitud de la persona obligada y tras la acreditación documental de la correcta gestión de los residuos generados en la obra de acuerdo con lo establecido en el art. 6 del Decreto.*

- ***Asimismo deberá tener en cuenta otras consideraciones:***

*a. El horario permitido para ejecución de obras es de 8:00 horas a 20:00 horas los días laborables y de 8:00 horas a 14:00 horas los sábados. En días festivos no se podrán ejecutar.*

*b. Las obras se iniciarán dentro del plazo de 3 meses a contar desde la expedición de su licencia y deberá ser finalizadas en su totalidad en el plazo de 6 meses. El plazo de interrupción máxima será de un mes. El incumplimiento de cualquiera de estos plazos supondrá caducidad de la licencia.*

*c. Cuando sea necesaria la señalización vial alternativa, la misma se realizará en euskera y castellano, y se utilizará el euskera en caso de grafía similar*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

esamoldeak edota piktogramen bidez egiten direnak (Euskararen erabilera normalizatzeko ordenantzaren 18. artikulua). Udalak itzulpenetarako doako zerbitzua ematen du: 943805622.

*en los dos idiomas así como en caso de anuncios que utilicen pictogramas / símbolos internacionales (Artículo 18 de la ordenanza de normalización del uso del euskera). Servicio gratuito de traducción del Ayuntamiento: 943805622.*

- **Obra amaitu ostean aurkeztu beharreko dokumentazioa**:

1. Obra amaierako ziurtagiria.
2. Obra amaierako likidazioa.
3. Hondakinak egoki kudeatu izanaren ziurtagiriak.

- ***Documentación a presentar una vez finalizada la obra:***

1. *Certificado fin de obra.*
2. *Liquidación de fin de obra.*
3. *Certificados de correcta gestión de los residuos.*

➢ Lizentzi hau eskuratzeko aurretik udal zergak eta tasak ordaindu beharko dira.

➢ *Esta licencia queda condicionada al previo pago de los correspondientes impuestos y tasas municipales*

➢ Akordio hau doakionari jakinaraztea.

➢ *Notifíquese el presente Acuerdo a las personas*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

## 8.- Zenbait txosten eta eskaera

Adur: gai-ordenetik kanpo, bi obra komentatu nahi genizkizuen.

Batetik, Zuhaiztikoa. Igogailua barrutik joango da eta bestalde, emergentzia kasuetarako bi eskailera beharko dira Haizpeko aldetik. Obrekin ahal dela abuztuan hasi behar dugu.

Bestalde, Barrenako igogailuarena dago. Eraikin babestua da eta igogailua jarri behar da. Arazoak daude ebakuazioarekin izan ere Maddi eta Pilar aztertzen ari dira eta ez du betetzen. Nolanahi ere egun ez du betetzen nahiz eta ebakuazio planoan jasota egon baina ez da egia. Legeak dio metro batekoa izan behar duela eta hogei zentimetro kentzen zaizkio.

Beraz, txostena bukatzen ari dira.

## 8.- Informes y solicitudes varias

*Adur: fuera del orden del día, queríamos comentaros dos obras.*

*Por un lado, la de Zuhaizti. El ascensor discurrirá por su interior, mientras que en caso de emergencia se necesitarán dos escaleras por el lado de Haizpe. A poder ser, tenemos que comenzar las obras en agosto.*

*Por otro lado, está el ascensor de Barrena. Es un edificio protegido y hay que instalar un ascensor. Hay problemas con la evacuación. Maddi y Pilar están estudiando el proyecto y actualmente no cumple la legalidad, aunque esté recogido en el plano de evacuación que sí, pero no es cierto. La ley dice que debe de ser de un metro y se le quitan veinte centímetros.*

*Por lo tanto, se está ultimando el informe.*

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.*

| | |
|---|---|
| **Sinatzaileak** Firmantes | **ALKATEAK /** EL ALCALDE<br>Adur Ezenarro Agirre<br>**IDAZKARIA /** LA SECRETARIA<br>Ainhoa Esnaola Zubeldia |



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Ordiziako Udala

2022ITGB0010

| | |
|---|---|
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAADJAMS.WSih |

**AINHOA ESNAOLA ZUBELDIA**
**2022/6/23**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus   www.ordizia.eus